

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak arrakasta izateko, hainbat elementu garrantzitsu behar ditugu, bai giza-baliabideen, finantza-baliabideen, azpiegituren, edukien eta jardueren aldetik.

Lehenik eta behin, **giza-baliabideak** dira funtsezkoak. “Firehall Solutions” empresako software-garaztaileek aplikazioa programatu eta diseinatu dute, eta feminismoan adituak direneak, hauetako bat Paula Diaz Altozano, arduratuko dira hezkuntza-edukiak sortzeaz, zehatzak eta garrantzitsuak izan daitezen. Community managerren taldea, 5 pertsonaz osatuta, komunitatea kudeatuko dute eta erabiltzaileekin harremanetan egongo dira. Bestalde, marketin digitaleko espezialistek aplikazioa sustatzeko lan egingo dute Community Managerrekin batera sare sozialetan eta beste plataforma garrantzitsuetan, eta itzultzaileek aplikazioa eleaniztun bihurtuko dute.



Bigarrenik, **finantza-baliabideak** ezinbestekoak dira garapena eta funtzionamendua bermatzeko. Hasierako finantzaketa beharrezkoa izango da garapen-lanak, marketin-kanpainak eta mantentze-lanak estaltzeko. Publizitate eta promozio funtsak ere garrantzitsuak dira aplikazioa ezagutarazteko eta erabiltzaile basea handitzeko. Gauzak horrela, Aurora enpresako kide bakoitzak 1.000€ko diru kopurua jarriko du hasierako kapital sozial bezala. Horrela, 4.000€ko kapital soziala izango genuke enpresa sortzerako unean.

Hirugarrenik, **azpiegitura teknologiko egokia** beharko da. Zerbitzari eta datu-base seguruek erabiltzaileen informazioa kudeatuko dute, eta garatzaileentzako ordenagailu eta hardware egokia eskuratu beharko da, Langile bakoitzeko ordenagailu bat, baita, sare sozialetan arituko direnentzat Iphone bat.



Laugarrenik, **Edukia eta jabetza intelektualak funtsezkoak dira.** Hezkuntza-edukiak eta matxismoaren inguruko aktibismo-baliabideak sortzea proiektuaren erdigunean egongo da, eta horretarako, diziplina anitzeko talde bat osatuko da. Talde honetan, hezkuntzan espezializatutako profesionalak, genero-ikuspegiko adituak eta eduki sortzaileak bilduko dira. Gainera, funtzio berritzaileak babesteko, patenteak edo jabetza intelektualaren erregistroak ezartzeko prozesua abian jarriko dugu, talde juridiko baten eta industria-espezialisten laguntzarekin.

Azkenik, **baliabide fisikoak eta jarduera nagusiak** kontuan hartu behar dira. Lan egiteko espazio bat behar da, nahiz eta taldeak urrunetik lan egin dezakeen. Internet konexio fidagarria eta bulegoko ekipamendua ezinbestekoak izango dira proiektua garatzeko. Gure bulegoa/lokala Basurton kokatuko da (Mala Estrata, 4, Basurto-Zorroza, 48012 Bilbao, Vizcaya). Jardueren artean, app-aren garapena eta mantentzea, hezkuntza-edukiak eguneratzea, komunitatearen sustapena eta marketin kanpainak egitea nabarmendu behar dira.



Laburbilduz, behar horiek betez, Aurora proiektua eraginkorra eta iraunkorra izango da, matxismoaren aurkako borrokan benetako eragina lortzeko ahalmenarekin.

